

## ***Rubus ulmifolius***

**Sasia**

### **Itxura orokorra**

Zuhaixka arantzatsua, modu nahasian hazten dena. Bere fruitu jangarriei esker da ezaguna.



### **Hostoak**

Hiru edo bost hosto txikiagoz osatutako hosto konposatuak ditu. Arrautza forma dute eta ertz horzduna edo zerratua. Kolore berde ilunekoak dira gainaldean, eta zurixkak azpialdean, dituen ile txikiengatik.



### **Loreak**

Hermafroditak. Bost petalo zuri edo arrosa dituzte, eta estebre ugari. Mahats adarkatuak sortzen dituzte.



### **Fruitua**

Bere fruitua, masusta da. Haragitsua eta jangarria da eta fruitu txiki esferiko pilatuez osatua dago, bakoitzak bere hazia barruan duela. Kolore gorrixkako hasieran, baina beltza bukaeran, erabat heltzen direnean.

